

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

30/2026 Foru Dekretua, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 20ko 31/2023 Foru Dekretua aldatzea, zeinaren bidez onesten baitira muga naturalak edo bestelako muga espezifikoak dituzten eremuetarako laguntzen oinarri arauak eta 2026rako deialdia

Gobernu Kontseiluaren ekainaren 20ko 31/2023 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion Arabako Lurralde Historikoan muga naturalak eta beste muga jakin batzuk dituzten zonetarako laguntzen oinarri arautzailei.

2025ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen Barne Auditoretzako Zerbitzuak 6613 esku hartzeari (muga naturalak edo beste muga jakin batzuk dituzten zonetarako laguntzak) dagokion 2024ko deialdiaren auditoretza egin du. Auditoretza horren ondorioz, plan zuzentzaile bat proposatu dute, oinarri arautzaileak aldatzeko gomendio batekin, berariaz sartzeko ezen, aurrekontu partida agortzeagatik hainbanaketa aurreikusten bada, emakume nekazarien titulartasuna lehenetsiko dela, halaxe xedatzen baita Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legearen 15. artikulua c letran. Horregatik, beharrezkoa da oinarri arautzaileak egokitzea eta berariaz jasotzea lege horrek zer adierazten duen.

Oinarri arautzaileen 5. artikulua xedatzen du urtero onetsiko dela laguntzen deialdia, eta haren barruan honako hauek jasoko direla:

- Deialdiko laguntza lerroak.
- Deialdia ebazteko erreserbatzen diren kredituak.
- Laguntza primaren zenbatekoa, hektareako eurotan, bi zonetako bakoitzerako.
- Eskerak aurkezteko epea eta lekua.

Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako gastu aurrekontuan bada partida bat, 40101. G/414400/47900405 “Konpentsaziozko kalte ordainak alde behartsuentzat” izeneko, eta kreditu nahikoa dauka deialdi honi aurre egiteko.

Foru dekretu hau izapidetzean kontuan eduki dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatzen dituen eta Arabako Foru Aldundiaren Xedapen Orokorrak egiteko Prozedura onesten duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioak. Horrela, azaldu ditugun aurrekarietan, behar bezala justifikatu da araudi berri baten beharra, eta, gainera, araugintza jarduna neurritzeko da, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbestekoa den gutxienez mugatu baita. Dekretua idaztean, kontuan hartu dira Arabako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) inspirazio iturri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren edukia eta Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legea ere. Kontuan hartu dira, halaber, Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak horri buruz egingdako txostenean jasotako oharra. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzeko dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, entzunaldiko eta jendaurreko izapideak bete direlako lege ezarritako epeetan. Efizientzia printzipioaz denaz

bezainbatean, proposatzen den arauketak, bere izaera dela eta, ez dakar administrazio karga osagarririk edo alferrikakorik herritar guztientzat, ez eta baliabide publikoen kontsumo handia-
gorik ere. Sinpletasun eta ulergarritasun printzipioei dagokienez, proposatutako testua modu
egituratuan idatzi da, hizkuntza argia eta ulergarria erabiliz.

Nahitaezko txostenak ikusi dira, eta horrenbestez, Nekazaritza Saileko foru diputatuak pro-
posaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia azertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 20ko 31/2023 Foru Dekre-
tuaren I eranskineko 7.3 artikulua, banaketa proportzionala egiteko aukera arautzen duena, eta
honela uztea:

7.3 Foru dekretu honetan ezarritako laguntzak norgehiagoka prozedura bidez emango dira.
Laguntza eskaerei dagozkien finantza premiek laguntza horretarako aurrekontu erabilgarria
gainditzen badute, aurrekontua onuradun guztien artean banatuko da proportzionalki.

Hala ere, Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legearen 15. artikulua-
ren c) letraren arabera, hainbanaketa aurreikusten denean aurrekontu partida agortzen den
kasuan, titulartasun mota hauek dituzten ustiatzeki zenbateko osoa jasoko dute, hainbanatu
gabe: emakume baten titulartasuna, titulartasun partekatua, emakumeen esku dagoen sozietate-
tearen ehunekoa edo partaidetza gutxienez ehuneko 50 diren pertsona juridiko batena, kideak
bi badira, edo gutxienez ehuneko 40 gainerako kasuetan. Ustiatzeki horiei dagozkien laguntzak
osorik ordaintzeko aurrekontu kreditua nahikoa ez bada, laguntza horiei ere aplikatuko zaie
hainbanaketa.

Bigarrena. Onespina ematea, 2026. urterako, dirulaguntza horietarako deialdiari, honako
ezaugarri hauekin:

a) Deitutako esku hartzeak:

- Konpentsaziozko ordainketak mendialdeetarako.
- Konpentsaziozko ordainketak muga natural esanguratsuak dituzten edo mendikoak ez
diren beste alde behartsu batzuetarako.

b) Kreditu erreserbak:

1.500.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko
40101. G/414400/47900405 "Konpentsaziozko kalte ordainak alde behartsuentzat" partidaren
kontura, 2027. urtean, eta 2027. urtean ordainduko da.

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahalko dira Arabako Lurralde Historikoko
Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako muga barruan,
hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein
arrazoirengatik gerta daitekeen kreditu gehikuntzagatik ere.

Deialdi honetako laguntzetara bideratzen diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Al-
dundiaren Nekazaritza Sailaren aurrekontu kredituetatik aterako dira, eta Landa Garapenerako
Europako Nekazaritza Funtzarekin (LGENF) batera finantzatu ahal izango dira, ehuneko 65ean.

c) Laguntza primaren zenbatekoa, hektareako eurotan, honako hau izango da bi zonetako
bakoitzerako:

- Konpentsaziozko ordainketak mendialdeetarako: 87,91 euro/ha.
- Konpentsazio ordainketak muga natural esanguratsuak dituzten edo mendialdeez bes-
telako gune behartsuetarako: 63,34 euro/ha.

d) Eskakerak aurkezteko lekua eta epea.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko eskakerak abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretuaren IV. tituluan xedatutako eskakera bakarrean sartuko dira (2023tik aurrera Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan zuzeneko ordainketen esku hartzeak aplikatzeari eta betekizun komunak ezartzeari buruzkoa eta kudeaketa eta kontrol sistema integratuaren eskabide bakarra arautzeari buruzkoa).

Nolanahi ere, aintzat hartuko dira eta baliozkoak izango dira 2026ko otsailaren 1etik aurreko paragrafoan aipatutako eskakera bakarra aurkezteko epea amaitu arte xede horrekin aurkeztutako laguntza eskakerak.

Eskakera bakarra aurkezteko epea luzatzen bada, zuzenean luzatuko da denbora bererako laguntza lerro hauetarako eskakerak aurkezteko eta aldatzeko epea.

Eskakera Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren eskualdeko nekazaritza bulegoetan egingo da, edo <https://npb-pac.apps.euskadi.eus/SgaCac> web atariaren bidez. Atari horretara ziurtagiri digitalaren bidez sartu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe (urriaren 1eko 39/2015 Legea).

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 4a

Diputatu Nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA